

MUGALARIAK. MEMORIA

Mugalariak programan parte hartu ondoren, konpainiak egin behar duten memoriarako **bide orri** bat da hau. Jarraian aurkezten ditugun atal batzuk beste partaideen balorazioa baita ere jasotzeko asmoarekin pentsatuta daude.

1. Proiektuaren laburpena. (50 hitz)

TXORIAK egitasmoarekin Dantzazek mugaz bestaldeko bi eskolekin batera erresidentzi bat egin du, Mikel Laboaren unibertsoan oinarritutako ekoizpena erabiliz, irakasleekin oso gertutik lan egiten, komunitate osoa inplikazioarekin: plangintza pedagogikoa zabala eraikiz, eta lau pieza koreografikoak sortuz, bi, umeekin batera, eta beste bi, bi koreografo gonbidaturik bereziki sortuta, dantzari profesionaleentzako eta umeentzako.

2. Parte hartzaileak:

- Dantzaz (proiektuaren egilea eta burua)
- Scene du Pays Basque
- Egia KZ-Donostia Kultura
- Manex Erdozaintzi Kolegio
- Maria Reina Eskola
- Josu Mujika-koreografoa
- Iñaki Salvador-aholkulari Musikala
- ALKI-altzairugintza entrepresa

Dantzaz-i buruz:

Dantzazek lau estruktura biltzen ditu bere barnean:

- Europako dantzari gazteentzako LEHEN ENPLEGURAKO PLATAFORMA bat, hau da, lehen aukera profesionaltasunean ematen diegu, lehen kontratua. 2006tik hona, 77 dantzari pasa da guregandian
- Dantza Konpainia bat (Dantzaz Konpainia), dantzari horiek enplegatzeko. 250 emanaldi baino gehiago europan zehar, 90.000 ikusle baino gehiago. Konpainia baino, EKOIZPEN ETXEA da, koreograforik ez dugulako gure barnean, gonbidatzen bait ditugu. Urte bakoitzean 6-10 koreografoekin aritzen gara, ekoizpen ezberdinak egiten. Hortan datza gure "majia" dantzari gazteak enplegura bidaltzeko: ekoizpen profesional ugari eta kalitatezkoak egiten
- MEDIAZIOraiko gabinetea, 2002tik lanean dabilena, eskolak, komunitatearekin lantzen (hain zuzen ere, honetatik dator egitasmo hau)
- BERRIKUNTZAaako laborategia "THINK TANZ", sektore ezberdinekin lanean aritzeko, laborategiak proposatzen. Esperientziak bukatuta, ebaluaketa ona baldin bada, prototipoak aurkezten ditugu.
- Orain artean egindakoak, adibide giza: Dantza-Pote, (ostalaritza) edo Dantzagela (hezkuntza), baita turismoa, altzairugintza, industria...

3. Helburuak

Hasierako helburuak mantendu eta biderkatu egin dira!

Planteamendua hau zen:

dantza ekoizpen batean dauden osagarriekin plangintza pedagogiko oso bat egin, dantza konpainia baten erresidentzarekin lotuta, komunitate osoarekin harremanduz

Batez ere, Larzabaleko kolegioak proposatuta, Dantzazek aldatu behar izan zuen plangintza osoa, erresidentziari ordu gehiago emateko.

Horrela, konpainia bitan banatzea erabaki zen (6 + 6) eta erdia bakoitza alde batera joan erresidentzian izateko

Gainera, Madrilgo Goi Kontserbategiarekin dugun akordioa erabiliz, bi koreografo gazteak gonbidatu genituen gurekin lan egiteko, eta dantzariak eta umeentzako sormen bat egiteko erresidentziaren arretsaldeetan

Donostiko azken emanaldia kontutan izanda, 4 piezak aurkezteko, eta bi aldeetako komunitateak elkartzeko (300 lagun inguru), izugarrizko bukaera izan zen. Baina hor ez zen dena bukatu!

Iñaki Salvador, aholkulari musikala, bisitaldia egin zuen hori eta gero, baita Alki entrepresako kideak (ekoizpenean kolaboratu zutenak), eta Mikel Laboaren laguna zuen Bostonetik argazkilari bat etorri zen Larzabalera, Laboari buruz hitzegitera.

Beraz, proiektuak zituen helburuak, proiektuarekin batera hazi dira! :-)

4. Prozesuaren kontaketa fasea:

- Proiekturaen jatorria/abiapuntua:
 - Dantzazek badu helburu nagusi bezala mediazioa, dantza komunitatea indartu eta zabaltzeko. Horregatik ari da lanean 2002tik, tailerrak, laborategiak eta kanpainak planteatzen
- Bi abiapuntu eta aurrekariak:
 - Arizmendi Ikastolarekin egindako laborategia: dantza ekoizpen bat eskola baten plangintza pedagogikoan erabiltzeko laborategia (bideoa: <https://vimeo.com/98536507>)
 - Txoriak: Mikel Laboaren unibertsoari buruzko ekoizpena (bideoa: <https://vimeo.com/109322422>)
- Garapen fasea:
 - Behin proiektua onartuta, hasi ginen bi kideekin kontaktatzen, hau da, Egia KZ, eta Scene du Pays Basque-ekin.
 - Bi ikastetxe izan ziren aukeratuak, eta onartu zuten proiektuan parte hartzea: Maria Reina Eskola Donostian, eta Manex Erdozaintzi Kolegioa Larzabalen
 - Proiektua erabat aldatu behar izan zen, bi kideen beharretara eta nahietara moldatzeko. Hasieran egunero ordu bat eskolan pasatzea zen helburua, eta orain erresidentzia (hau da, egun osoa) izatera pasatu zen
 - Gainera, umeak eta dantzariak elkarrekin lan egiteko, Madrilgo goi-kontserbatorioko bi koreografia graduatu gonbidatu genituen gurekin lan egiteko erresidentzian, hau da, Nathalie Remadi, eta Lucia Montes
 - Beraz, 2015eko urtarrilaren 12 eta 16 artean, egonaldiak egin ziren bi ikastetxeetan, eta 6 dantzari eta koreografo bat bertan egondi ziren aste osoan zehar.
 - Bitartean, bilera batzuekin egin ziren ikastetxe bakoitzeko irakasle, langile eta gurasoekin, proiektua azaltzeko.
 - Irakaslegoarekiko prozesua: ekoizpenaren osagarriak prozesu pedagogikoan erabiltzeko, bilera batzuekin egin ziren, eta "on line" lana, plangintza osoa osatu arte

- Azaroan Donostiako Gazteszenan Txoriak moldatu eta egokitu zen, eta aukera baliatu genuen bi ikastetxeko irakasleak biltzeko, ekoizpena eta konpainia ezagutzeko, eta elkarkomunean proposamen pedagogikoak jartzeko.
- Itxiera fasea
 - Urtarrilaren 17an aurkeztu ziren sortutako 4 pieza (bi alde bakoitzean) Gazteszenan, eta bi ikastetxeetako ikasle, irakasle eta guraso etorri ziren ikustera, 250 pertsona inguru.

5. Jarraipena. ¿Proposamenik ba al dago hasitako elkarlana jarraitzeko?

Dantzazek jarraituko du bide honetatik lantzen, eta beste ikastetxeekin ari da lanean, dantza erabilgarria izateko prozesu pedagogiko osoan.

Beste kideekin hasitako harremana mantentzen saiatuko gara, eta gustatuko litzaiguke esperientzia 2.0 planteatzea, horretarako baliabideak bilatuz gero.

6. Balorazioa.(*)

Mugalariak egitasmoak/programak, elkarlana eta harreman berriak pizten dituzten proiektuak bultzatzen ditu. Hau horrela izanik, partaide bezela, zuen iritzia jasotzea gustatuko litzaiguke. Ondorengo galderak, beste eragileekin egindako lanaren inguruan hausnarketa bat proposatzen dute

- ondorioak, ikasketak, zertarako balio izan zaizun esperientziak?

Kideekin izandako esperientzia oso aberatsa izan da. Erresidentziaren kontzeptua gustatu zaigu, eta umeekeko egindako sormena oso baliogarria izan da guretzat

Inportanteenetarikoak: Mikel Laboaren ondarea nola zabaldu dugu bidean aurkitutako kide guztiak erabiliz (Dantzaz, gero Josu Mujika, gero Iñaki Salvador, gero Alki, gero Lekeitio, gero Donostia Kultura eta Scene du Pays Basque, gero eskolak, eta guztien arteko lotura!!)

- Eraldaketaren bat egon da zuen praktikan? Prozesu hauek zuen praktikan txertatzeko plana duzue? (programa berri bat, beste eragileekin kolaborazio iraunkorra...)

Nahiko genuke gure estrukturarako definizio berri hau sartu, baina oraindik ez dugu erabat bukatu definizio berria. Hala ere, bai, intenzioa dugu honelako lanarekin jarraitzeko, hain zuzen ere, pentsatzen dugulako horrelako egitasmoak garrantzi izugarria dutela egileak, sortzaileak eta ondarea zabaltzeko.

- Zeintzuk dira dituzun baliabideak eta beharrak metodologia honekin jarraitzeko.

Batez ere, gure eskarmentua, eta gure dantzari gazteek emandako energia eta gogo bizia.

7. Glosarioa.(*)

Esperientziarekin lotzen dituzun 3 hitz aipatu
sinergia, harremana, komunitatea-**sarea**

8. Iruditegiak. (*)

Esperientziarekin lotzen dituzun 3 irudi. (Prozesuan hartutako irudiak, sinbolikoak, metaforikoak ...)

Sarearena, komunitatearena, azken egunean Gazteszenan izandako topaketaren bukaera: malkoak, "selfiak", besarkadak, aurpegi irribarretsu...

(*) beste partaideekin konpartituko ditugun atalak.